

June Aiestaran Iparragirre

B maila • 1 saria

Kaixo, June Aiestaran naiz, eta DBH3. maila ikasten ari naiz Txindokin. Ditudan zaletasun guztien artean bertsolaritza da gehien gustatzen zaidana. Aurten birusaren kontua besterik entzun ez dugunez, gai desberdinen batean oinarritu nahi nuen bertso sorta idazterako garaian. Hausnartzeko nahikoa izan dugu urte honetan, baina beste kontu batzuetako hausnarketa eginarazi nahiko nioke hau irakurtzen ari denari. Emakumeon bizipenak azaldu ditut bertso sortan, eta bizipen horien aurrean sentitzen duguna edo burutik pasatzen zaiguna. Oraindik zer aldatu eta zer hausnartua badugunez, espero dut bertso-sorta hau gustatzea.



Doinua: Ze ederra ta ze polita

EMAKUME JAIO GINEN

1.

Emakume jaio ginen
ta hori ez da biguna,
batera bizi baitira
lorea eta asuna.
Mingarria da parean
dugun gizarte lizuna,
zama bat da erabaki
orok duen oihartzuna.
Askok ez dute ulertzen
maiz jasan behar duguna,
azalduko dizudan hau
ez al duzu ezaguna?

BERTSOAK

2.

Jaiki eta berehala
garrasika hankartea,
izara zuriak gorri,
eztanda bat, sua, kea.
Kuleroetan orbain bat,
goiz eder baten kaltea.
Zer egin behar dut orain?
Azkar itxi dut atea.
Ez dut zergatik lotsatu,
hau da errealitatea,
esaten dutenez hau da
emakume izatea.

3.

Telebistan dena hain fin,
beso, izter eta lepo,
eta ispilu aurrean
izan nahi nuke antzeko.
Nahiz eta zenbait kapaz den
dena zalantzan jartzeko,
estereotipo horiek
nola ez ditut beteko?
Jada hain handia banaiz,
nerabe dagoeneko,
zer pasatzen zait burutik
horren txiki sentitzeko?

4.

Larunbatero ohi legez
kantu, dantza eta trago,
etxera bidea, baina,
desberdina da zeharo.
Lagunak atzean utzi
ta joan naiz azkarrago;
nire buruari diot
"gaurko honetan akabo".
Atzera begiratzeak
horrenbeste erreparo,
nire itzalari ere
beldurrez begira nago.

BERTSOAK

5.

“Emakumeek denari
deitzen diote delitu”.

“Egiten duten bakarra
kozinatu ta garbitu”.

“Nik nahi dudan guztietan
ezin al ditut ukitu?”.

“Ta nik esandakoari
behar diote obeditu”.

Entzuten ditugun denak
gugan nola digeritu?

Gure pauso denak ahots
horrek mugatzen baditu.

6.

Nahiz eta une askotan
sentitu lotsa mardula,

jabetu gorputz ideal
perfekturik ez dugula.

Nahiz eta beldurrak oro
sentiarazi ahula,

sinestarazi ez dela
aldatuko pelikula.

Ziur harro sentitzeaz
zeozer badakigula,

gugan baitago bizitza
perfektu baten formula.